

**GIPUZKOAKO ALTZARIAREN ETA OSAGARRIEN INDUSTRIAREN
SEKTOREKO ENPRESEK ETA LANGILEEK GEROA BORONDATEZKO
GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEARI EGIN BEHARREKO
EKARPENEI BURUZKO AKORDIOAREN BATZORDE NEGOZIATZAILEA
ERATZEAREN AKTA.**

Langileen ordezkariak

ELA-STV

Luis M^a Arana

Xabier Agirretxe

LAB

Patxi Alzibar

José Carlos Etxeberria

Enpresen ordezkariak

ADEGI

Juan Ramón Apezetxea

Zuraren Merk. Zerb.

Carmelo Mendivil

Juan M^a Zubizarreta Arambarri

Donostian, 1999ko urtarrilaren 14an, goraxeago adierazi diren pertsonak bildu dira, ADEGI eta Zuraren Merkataritza Zerbitzuen ordezkariak eta ELA-STV eta LAB sindikatuen ordezkariak. Bilera honen helburua Batzorde Negoziatzaile bat eratzea da, eta Batzorde Negoziatzaile horrek Gipuzkoako altzarien eta osagarrien industriaren sektoreko enpresa eta langileek GEROA, BGA Eri egin beharreko ekarpenak finkatu behar ditu, Langileen Estatutuaren 83.3. artikuluan ezartzen denaren indarrez. GEROA, BGA Eri Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen erregistroan 178-G zenbakia du. Ondoko erabakiak hartu dira:

1. Batzorde Negoziatzailean aipatutako sindikatu eta bakoitzeko ordezkari bat eta elkarte patronaletako bakoitzeko ordezkari bat izango da. Sindikatuek ondoko ordezkariak dute, erabakiak hartzeko ondorioetarako: ELA-STV %80 eta LABek %20; hortaz, gehiengo osoa dute har daitezkeen erabakiak erabateko eraginkortasunez bideratzeko.

2. Negoziazioei mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko urtarilaren hogeita batean ekitea erabaki da.

Eta, besterik gabe, amaiera eman zaio bilkurari goian adierazitako hirian eta egunean.

**GIPUZKOAKO ALTZARIAREN ETA OSAGARRIEN INDUSTRIAREN
SEKTOREKO ENPRESEK ETA LANGILEEK GEROA BORONDATEZKO
GIZARTE-AURREIKUSPENEN ERAKUNDEARI EGIN BEHARREKO
EKARPENEN BURUZKO AKORDIOA SINATZEAREN AKTA**

Langileen ordezkariak

ELA-STV

Luis M^a Arana

Xabier Agirretxe

Enpresen ordezkariak

ADEGI

Juan Ramón Apezetxea

Zuraren Merk. Zerbitz.

Carmelo Mendivil

Juan M^a Zubizarreta Arambarri

Donostian, 1999ko maiatzaren 5ean, ELAren egoitzan bildu dira goraxeago adierazi diren pertsonak. Pertsona horiek osatzen duten Akordioaren Batzorde Negoziatzaileak (LAB falta da) erabaki beharko du Gipuzkoako altzarien eta osagarrien industriaren sektoreko enpresa eta langileek GEROA, BGAeri egin beharreko ekarpenak finkatu behar dituen Akordioa. GEROA, BGAek Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen erregistroan 178-G zenbakia du.

Enpresaren ordezkariak, hau da, ADEGIk eta Zuraren Merkataritza Zerbitzuak, eta, bestetik, ELA sindikatuaren ordezkariak ondokoa erabaki dute:

1. Akordio hauek Gipuzkoako altzariaren eta osagarrien industriaren sektoreko enpresa eta langile guztiengan dute eragina.

Hori dela-eta, akordio hauen aplikazio-esparruak bat egingo du indarrean dagoen 1999-2000ko Gipuzkoako altzarien eta osagarrien industrietarako hitzarmen kolektiboaren 2. artikuluan (esparru funtzionala) eta 3. artikuluko lehen paragrafoan (esparru pertsonala) ezartzen den esparru funtzional eta pertsonalarekin. Hortaz, adierazitako esparruan barne hartzen diren altzarien eta osagarrien industriako enpresa eta lantegi guztietan eta bertako langileengan izango du eragina akordio horrek, enpresa eta lantegi horietan beren hitzarmen edo itun kolektiboak dituzten arren edo gauza ditzaketen arren.

2. 1994ko ekainaren 20ko Gizarte Segurantzaren Legearen 39.2. artikuluan adierazitakoaren indarrez, akordio honen eraginpean dauden enpresek eta langileek GEROA Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari hilean nahitaez egin beharreko ekarpena ondokoa izango da:

- **Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko irailaren batetik aurrera** langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %0,50, %0,25 langilearen kargura izango da eta beste %0,25 enpresaren kargura.

- **Bi milako urtarrilaren batetik aurrera** langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %1, %0,50 langilearen kargura izango da eta beste %0,50 enpresaren kargura.

Enpresak batera egingo ditu ekarpenak; hortaz, langilearen kargurako ehunekoia dagokion soldataren nominatik kenduko da.

3. Akordio hauek “gai jakin bati buruzko akordioak” dira, Langileen Estatutuaren 83.3. artikuluan aintzat hartzen den moduan. Hala, erakunde sinatzaileek artikuluko horretan jasotzen den ordezkariak izango dute.

4. Lan Agintaritzari Akordio hauek jaso eta erregistra ditzan eskatuko zaio, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ditzan ere.

Eta, besterik gabe, amaiera eman zaio bilkurari goian adierazitako hirian eta egunean.